

JOSEBA SARRIONANDIA

BIDAIA POETIKOA



Egilea: Miren Edurne Elizalde

Donostia, R600.

2010-2011 ikasturtea

1. BIOGRAFIA

1958. urtean jaio zen Iurretan (Bizkaian). Euskal Filologia ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean eta, lizentziatu ondoren, euskara-irakasle jardun zuen lanean. Bergarako UNEDen Fonetika irakasle izan zen, baita Udako Euskal Unibertsitatean ere.

Gaztetatik irakurle ona, aldizkari askotariko kolaboratzaile (*Zeruko Argia*, *Anaitasuna*, *Ibaizabal* eta *Pott*), itzultzaile, irakasle eta euskaltzain urgazle da.

1980an, ETako kide izateagatik atxilotu zuten, eta 1980-85 bitartean egon zen espetxean. 1985. urtean, San Fermin egunean, Martuteneko presondegian zegoelarik, Imanol kantariaren emanaldia izan zen kartzelan. Amaitutakoan, bozgorailuetan ezkutaturik ihes egin zuen, eta harrezkero, iheslari dabil.

Ihesi joanez geroztiko hogeita sei urte inguru honetan, erregulartasunez iritsi dira argialetxeetara eta liburu dendetara bere izkribuak. Emaiza oparoa du dagoeneko, eta, gainera, literaturaren arloan idatzi dituen lanek gure garaiko euskal sortzaileen artean leku berezia izatera ekarri dute, hala kalitatez, adituen ustez, nola irakurle- eta salmenta-kopuruz. Horren ondorioz, bere idazte-lanak Joseba Sarrionandia euskal literaturaren protagonista garrantzitsuenetako bat bilakatu du, irakurleen, kritikoen nahiz idazleen aldetik.

POTT BANDAren sortzaileetako bat izan zen; talde hori oso garrantzitsua izan zen haren biografian.

Anitzetan, idazleak eta idazlegaiak, taldean, lagunartean bildu ohi dira, beren ideiak, asmoak, ametsak elkarri kontatzeko. Asmo horrekin elkartzen ziren, besteak beste, Sarrionandia, Bernardo Atxaga, Joxemari Iturralde eta Ruper Ordorika solasean aritzeko, literaturaren asmoak elkarren babesean aurrera ateratzeko, irakurketak elkarren artean komentatzeko... ; Arriaga antzokiaren kafetegian elkartzen ziren.

Aldizkari literario ederra ere sortu zuten, "Pott" izenekoa. Talde horrek, 70eko hamarkadaren bukaeran, euskal literatura berritzeko, ordura artekoarekin (errespetatzen bazuten ere) haustura sortzeko asmoa zuen. Kanpoko literatura eta egile modernoekin loturak izateari garrantzitsua zeritzoten, euskal literatura normaltasunez gara zedin; hau da, literatura euskaraz naturaltasunez egin nahi zuten. Dena egiteko zegoen, eta estetika eta etika bila hasi ziren.

Idazle haiek guztiek beste zenbaitek aurretik hasitako bideari jarraipena eman zioten, euskal literatura bide modernotik eramateari, alegia, Europan nahiz Amerikan egiten zen literatura mota landuz.

2. IDAZLANAK

Literaturaren bi arlo nagusitan nabarmendu da: poesian eta prosan. Munduko literaturaren ezagupen zabal eta sakona erakusten du.

Obra ugari idatzi du Sarrionandiak: poesia, saiakera, itzulpenak eta ipuingintza landu ditu, batez ere. Koldo Izagirreren iritziz, gogoeta ipuinduen generoa ere sortu du; esaterako, *Han izanik hona naiz* eta *Ez gara geure baitakoak* liburuen narrazio laburrak. Bi eleberri ere idatzi ditu : *Lagun izoztua* eta *Kolosala izango da*.

Hona hemen argitaratu dituen liburuen zerrenda:

Poesia

- *Izuen gordelekuetan barrena*, Bilboko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1981.
- *Intxaur azal baten barruan. Eguberri amarauna*, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Lizarra, 1983.
- *Alkohola poemak*, Pamiela, Iruñea, 1984. Beste askorekin batera.
- *Marinel zaharrak*, Elkar, Iruñea, 1987.
- *Gartzelako poemak*, Susa, Iruñea, 1992.
- *Hnuy illa nyha majah yahoo (poemak 1985-1995)*, Elkar, Donostia, 1995.
- *Hau da ene ondasun guzia*, Txalaparta, Tafalla, 1999. Disko-liburua.
- *XX. mendeko poesia kaierak: Joseba Sarrionandia*, Susa, Iruñea, 2002. Koldo Izagirreren antologia.

Narrazioa

- *Narrazioak*, Elkar, Donostia, 1983.
- *Atabala eta euria*, Elkar, Donostia, 1986.
- *Ifar aldeko orduak*, Elkar, Donostia, 1990.
- *Miopeak, bizikletak eta beste langabetu batzuk*, Erein, Donostia, 1995.
- *Lagun izoztua*, Elkar, Donostia, 2001.
- *Kolosala izango da*, Txalaparta, Tafalla. 2003.
- *Gau ilunekoak*, Elkar, Donostia, 2008.

Saiakera

- *Ni ez naiz hemengoa*, Pamiela, Iruñea, 1985.
- *Marginalia*, Elkar, Donostia, 1988.
- *Ez gara gure baitakoak*, Pamiela, Iruñea, 1989.
- *Han izanik hona naiz*, Elkar, Donostia, 1992.
- *Hitzen ondoeza*, Txalaparta, Tafalla, 1997.
- *Akordatzan*, Txalaparta, Tafalla, 2004.
- *Moroak gara behelaino artean?*, Pamiela, Iruñea, 2010.
-

Haur literatura

- *Izeba Mariasunen ipuinak*, Elkar, Donostia, 1989.
- *Ainhoari gutunak*, Elkar, Donostia, 1990.
- *Harrapatutako txorien hegala*, Baigorri argitaletxea, Deba, 2005.
- *Munduko zazpi herrialdetako ipuinak*, Pamiela, Iruñea, 2008.
- *Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako*, Xangorin, Donostia, 2010.

Komikia

- *Zitroi ur komikiak: Joseba Sarrionandia komikitan*, Txalaparta eta Napartheid, 2000. Koldo Almandozekin batera.

Itzulpenak ([alter ego](#) batzuk)

Joseba Sarrionandiak, gainera, hainbat idazleren lanak itzuli ditu, eta haien inguruan askotan jarduten da bere liburuetan:

- *T. S. Eliot euskaraz*, Hordago, Donostia, 1983. "Lur eremua" poema.
- Konstantino Kavafis.
- Fernando Pessoa. *Marinela*, Susa, Zarautz, 1985. Euskaraz eta portugesez argitaratua.
- *Hamahiru ate. Umore beltzaren antologia*, Elkar, Donostia, 1985. Mixel Sarasketarekin batera.
- *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*, Pamiela, Iruñea, 1985.
- *Hezurrezko xirulak*, Elkar, Donostia, 1991.
- *Poemas naufragos. Galegoz heldutako poemak*, Susa, Zarautz, 1991. Euskaraz eta galegoz argitaratua.
- Samuel Taylor Coleridge. *Marinel zaharraren balada*, Pamiela, Iruñea, 1995. Euskaraz eta ingelesez argitaratua.
- Manuel Bandeira. *Antologia*, Pamiela, Iruñea, 1999.

- **Hainbat hizkuntzatara itzuliak**

Narrazioak

- Katalanez: *Narracions*, Editorial Pòrtic, [Barcelona](#), 1986. Itzultzailea: [Josep Daurella](#).
- Italieraz: *Lo scrittore e la sua ombra*, Giovanni Tranchida editore, [Milan](#), 2002. Itzultzailea: [Roberta Gozzi](#).

Ni ez naiz hemengoa

- Gaztelaniaz: *No soy de aquí*, [Hiru](#), [Hondarribia](#), 1991 / [Orain](#), [Hernani](#), 1995. Itzultzailea: [Bego Montorio](#).
- Alemanez: *Von Nirgendwo und Uberall*, Verlag Libertäre Assoziation, [Hamburg](#), 1995. Itzultzailea: [Ruth Baier](#).

Atabala eta euria

- Galegoz (argitaragabea): *Chuva e tamboril*. Itzultzailea: [Tereixa Hernandez Adebá](#).

Hau da ene ondasun guzia

- Bost hizkuntzatan (euskaraz, alemanez, ingelesez, gaztelaniaz eta frantsesez).

Lagun izoztua

- Alemanez: *Der gefrorene Mann*, Blumenbar, [Munich](#), 2007. Itzultzaileak: [Petra Elser](#) eta [Raul Zelik](#).

Moroak gara behelaino artean?

- Gaztelaniaz: *¿Somos como moros en la niebla?*. [Pamiela](#), [Iruñea](#), 2012. Itzultzailea: [Javier Rodríguez Hidalgo](#).
- Katalanez: *Som com moros dins la boira?*. Po·lem Edicions, [Bartzelona](#), 2012. Itzultzailea: [Ainara Munt Ojanguren](#).

Kolaborazio periodistikoa: [Pott](#), [Zeruko Argia](#), [Ibaizabal](#), [Anaitasuna](#) eta [Nabarra](#) aldizkariekin.

Sariak

- Ignacio Aldekoa Saria *Maggie*, indazu *kamamila* ipuinagatik, 1980an.

- Resurreccion Maria Azkue Saria *Izuen gordelekuetan barrenagatik*, 1980an.
- Bilboko Hiria Saria *Enperadore eroa ipuinagatik*, 1980an.
- Kritika Saria *Atabala eta euriagatik*, 2001ean, eta *Lagun izoztuagatik*, 1986an.
- Euskadi Saria *Moroak gara behelaino artean? saiakerarengatik*, 2011n.

Ikuskizunak

- *Hnuy illa...* Kukai Dantza Konpainia eta Tanttaka Teatroa, Mireia Gabilondok zuzendua, 2008.
- *Aulki hutsa*. Le Pettit Theatre de Pain, Ander Lipusek zuzendua, 2008.
- *Han izanik, hona naiz*. Apurka antzerki taldea, Borja Ruiz, 2009.
- *Decir lluvia y que llueva*. Kabia, Gaitzerdi Teatroren ikerkuntza dramatikorako gunea.
- *Koblakariak behar ditugu*. Karrika antzerki taldea, Gotzon Barandiaran, Miren Amuriza, Eñaut Elorrieta eta Unai Iturriaga, 2010.

Diskografia. Sarrionandiaren hainbat eta hainbat poema abestu dituzte euskal kantariak:

- *Ni ez naiz Noruegako Errege*. Ruper Ordorika, 1983: "Galtzetan gordetzeko koblak" eta "Alberto Caeiroren bisita".
- *Sei*. Mikel Laboa, 1985: "Sorterriko koblak".
- *In fraganti*. Oskorri, 1986: "Arratseko fadoa" eta "Biolin musikaz".
- *Mea kulparik ez*. Imanol, 1986: "Oroimeneko portua".
- *Hamabi*. Mikel Laboa, 1989: "Lili bat".
- *Datorrena datorrela*. Oskorri, 1989: "Inork agintzen ez didalako".
- *Euskal kantu txapelketa*. Finala, Iruri, 1989: "Hi oroitzuz".
- *Ez da posible*. Ruper Ordorika, 1990: "Ene begiek".
- *Zu zeu*. Gontzal Mendibil, 1990: "Bost minutuko bisita?".
- *Badok hamahiru*. Oskorri, 1992: "Marinel batzu".
- *Ebihotz*. Eltzegor, 1992: "Hil ez da deus hiltzen".

- *Hamalau*. Mikel Laboa, 1994: "Hegazti errariak", "Nao es tu faculdade de sentir", "Oroitzen zaitudanean, ama" eta "Gure oroitzapenak".
- *Jexuxmai & Noizbehinka*. Jexuxmai & Noizbehinka, 1994: "Sustraiak", "Amodio poema" eta "Azkenengo trena".
- *Zertarako mugak jarri*. Mikel Markez, 1995: "Preso egon denaren gogoa".
- *Apaiz gaztea*. Mikel Elizaga, 1995: "Amodioa".
- *Deabruak guarda!! Deabruak Teilatuetan*, 1996: "Hau da ene ondasun guzia".
- *Fran Lasuen & Eskuadra Zarra*. Fran Lasuen, 1996: "Oroimeneko portua" eta "Ez dut gure herria saltzeko".
- *Hori bera da denen ixtorioa*. Imanol, 1996: "Aldaketarik aldaketa".
- *Aise*. Jabier Muguruza, 1997: "*Linguae Vasconum Primitiae*".
- *Azkena*. Bittor Aiape, 1997: "Defenda ezazue zuen bake beltza" eta "Lagun presoak".
- *Denboratik at*. Jexuxmai & Noizbehinka, 1997: "Esku ahurreko marrak", "Bunba, blaf", "Thames gozoa" eta "Besterriko koblak".
- *Dabilen harria*. Ruper Ordorika, 1998: "Martin Larralde" eta "Gutunei koblak".
- *Nahiezker*. Dantzut, 1998: "Territorio librea".
- *...eta legeaz landako gure mintzairan solastuko*. Naun, 1998: "Kaleko kronika".
- *Brigadistak Sound System*. Fermin Muguruza, 1999: "Eguraldi lainotsua hiriburuan".
- *Ikasten*. Berri Txarrak, 1999: "Aspaldian utzitako zelda".
- *Ez diren gauzak*. Jexuxmai & Noizbehinka, 1999: "Ez diren gauzak", "Albisteak", "Sorlekuaren kanta", "Talaieroaren gogoeta", "11 aldaketa".

- *Zuzenean II - Gernika*. Mikel Laboa, 1999: "Kiromantzixa (Lekeitio 10)".
- *Sorterrira*. Trepí eta Arawak, 1999: "Herri proiektua" eta "Bake beltza".
- *Ikus*, 2000: "Zertarako?".
- *FM 99.00 Dub Manifest*. Fermin Muguruza, 2000: "Mendebaldarketa".
- *Eskuak/Ukabilak*. Berri Txarrak, 2001: "Mundua begiratzeko leihoak".
- *Meatzaldea*. Sagarroi, 2001: "Sagarroiak".
- *Kantuok jartzen ditut*. Ruper Ordorika, 2003: "Kantuaren gauza galdua".
- *Xoriek - 17*. Mikel Laboa, 2005: "Sustraiak han dituenak" eta "Xoriak (Xorien ihesa)".
- *Memoriaren mapan*. Ruper Ordorika, 2006: (Kantu guztiak).
- *Biluzik*. Kauta, 2006: "Norbere akaberari buruzko mintzaldia".
- *Pentsamendu hutsak*. Mikel Aranzabal, 2006: "Gose grebako hogeigarren egunean".
- *Konplitzeak*. Jabier Muguruza, 2007: "Norbere akaberari buruzko mintzaldia".
- *Argiak*. Ken Zazpi, 2007: "Gaueko Argiak".
- *Ortizemugak begietan*. Ken Zazpi, 2010: "Hemen gaude" eta "Giltzak".

http://www.badok.info/hitzak.php?id_musikatua=20

3. SARRIONANDIAREN POESIA ESKUARTEAN

Sarrionandiak beharrezko ikusten du *hizkera poetiko berezia* eraikitzea eta, lortu, lortu egin du hizkera hori: ama-hizkuntza, literatura klasikoa, literatura unibertsala ederki uztartzen ditu musikaltasunez beteriko hizkera leunaren bidez.

Koldo Izagirreraren ustez[k1], hiru etapa nagusi atzeman litezke haren orain arteko poesian; batetik, literaturaren deskubrimenduak eragindako testuarterekotasunak markatzen duen kultismoa; bestetik, egoera pertsonal gogorrek eragindako itxituraren eta urruntasunaren aurkako minduraren lirika, eta, azkenik, mundutar anonimo bilakatuak sorturiko *hemen nahi* eta *han beharraren* arteko aro dialektikoa.

Hiru aldietan aurkituko ditugu, tradizio poetikoen eraginaz edo oihartzunaz gainera, metafora ederrak, kontraste-jokoa, pentsamenduaren sakona eta esanguraren anitza eragozten ez duen biribiltasun formala. Poesiaren bidaiaria dugu Sarrionandia, eta poesia da haren erresistentzia antolatzeke lekua; poemek bakarrik eskaintzen diote libre izateko modu bat.

Sarrionandiak bere lanekin onura handiak ekarri dizkio euskal literaturaren garapenari; besteak beste, joera kultistaren abiatzaile, kartzelako poesiaren sortzaile, eta erbestea eta ihesa ezaugarri pertsonal bihurtzen dituen nortasunaren urratzaile izan da.

3.1. ALDI NAGUSIAK

Olerki lanen artean, sei aipatuko ditugu, lehen adierazitako hiru aldietan bereiziak; eta aldi bakoitzeko esanguratsuena aztertuko dugu (1. aldian, bi).

Lehenengo aldiari ondoko hirurak dagozkio:

- *Izuen gordelekuetan barrena*, 1981.
- *Intxaur azal baten barruan. Eguberri amarauna*, 1983.
- *Marinel zaharrak*, 1987.

Bigarren aldiari dagokiona:

Gartzelako poemak, 1992.

Hirugarren aldiari dagozkionak:

- *Hnuy illa nyha majah yahoo (Poemak 1985-1995)*, 1995.
- *Hau da ene ondasun guzia*, 1999. Disko-liburua.

3.1.1. LEHENENGO ALDIA

1. IZUEN GORDELEKUETAN BARRENA (1981) da haren poema-libururik aipagarrienetakoa. Irakurketetako oroitzapenak sortutako paisaia literarioetan barrena egindako nabigatzea da.

Koaderno gisa aurkezten du; hain zuzen ere, "Bitakora kaiera" izena du liburuaren lehenengo poemak. Ikus "Bitakora kaiera"
www.armiarma.com/emailuak/izuen/izue02.htm.

Lourdes Otaegiren iritziz[2], liburuaren izenburuari azalpenik aurkitzekotan, "Bitakora kaiera" sarrerako poeman aurki genezake. Bidaztia itsas bidaian zehar zorabiatu eta izutu egiten da. Orduan, gordelekuak bilatzen ditu; zokoetan gordetzen saiatzen da aldizka atsedean hartzeko, han ere izuak agertzen zaizkion arren. Bidaian zehar bisitatzen dituen portu horiek, hiri horiexek dira gordelekuak: Paris, Grezia, Lisboa, Irlanda eta Pragako gordelekuak. Poetak Homero, Melville eta beste askoren eskutik igaro ditu itsasoak. Harrigarria da kontatzen dena, eta herrialde horietan ikusitakoa norberak etxean bizi duenarekin konparatzen da. Estetika neosinbolista ederki datorkio bere helbururako: *bidaia, itsasontzia, hegaztiak...*

Poesiaren metafora nagusia bidaiari edo nabigatzeari berari lotua da. Bidaia eta deserria dira liburuaren ardatz tematikoak. Sorterritik deserrira doan bidaia hori Europako zazpi lurralde eta hiri zahar eta mitikotan zehar doa. Horietako bakoitzean literatura sortzaile bati egiten dio omenaldi poetak: Parisen, Baudelaire, Mallarmé eta nobela beltzari; Grezian, Kavafisi eta Segerisi; Lisboan, Fernando Pessoa; Irlandan, Yeats; Galesen, Dylan Thomasi; Pragan, Franz Kafkari, Rilkeri eta Holani. Alabaina, deserria da bidaiaren amaiera zilegizko bakarra "Etxera itzuli" poeman nabarmentzen den bezala.

Estilo-aberastasuna, testuen musikaltasuna eta erabilitako irudien ugaritasuna, besteak beste, labirintoarena edo marinel zaharrarena, azpimarratzea merezi duten ezaugarrietako batzuk dira.

Lehen etapa hau kultismoak markatzen du. Literatura unibertsalaren berri sakon eta zabala izateak ematen dio izaera hori, eta meta-literatura egiteak ere bai, nork berea sortzeko besteren literaturan oinarritzeak, alegia.

ETXERA ITZULI

*Altxorren mapak besapean
etxea utzi eta ondinen
abestien xerka abiatu ninduzun
izuen gordelekuetan barrena
sukarri urdin arre ttipiak
eta oihan beltzetako xokotan
usteltzen diren zozo habiak soilik
nizkizun bidaian eriden
denborak bidea agorturik*

*etxera itzuli ninduzunean
berria zizun ateko zura
eta sarraila ere.*

INORK AGINTZEN EZ DIDALAKO

*Inork agintzen ez didalako
dut maite
maite dudana.*

*Inork agintzen ez didalako
ditut basamortua eta izar lokak maite.
Itsasontzi noragabeak, gauerdiko biolinak
egunsentien margoa, xorino hezurtoa,
sagarrondoetan eskegiriko bihotz horiek,
tristura handiegi zaien neskatzak
eta zure irria, zure irria ere
inork agintzen ez didalako
dut maite.*

1. ariketa:

1. Adierazi zer iradokitzen dizun poemak.
2. "Inork agintzen ez didalako" leloak zer esan nahi du ?
3. Zer diozu teknikari buruz?
4. Egin zuk zeuk ahapaldi bat, "Inork agintzen ez didalako" leloa oinarritzat harturik.
5. Aipatu estilo-baliabiderik nabarmenenak, eta azaldu haien zeregina.

2. MARINEL ZAHARRAK (1987) liburua ordura arte berak idatzitakoaren antologia kritikoa da. Batetik, *Izuen gordelekuetan barrena* liburuko aukeraketa zaindua egin du; bestetik, kartzelan eta ihesaldian idatzitako beste batzuk erantsi. Liburu hau da Sarrionaindiaren lanen giltzarri, haren lanaren begirada osoa eskaintzen duelako: espetxeratu aurrekoa, kartzelakoa eta ihesaldikoa. Ahots ezkorra gailentzen da bertan, eta, aurreko liburuaren testuartekotasun nabarmena baztertuz, literaturak ahal duenari buruzko eszeptizismoa da nagusi, esaterako, "Literatura eta iraultza" poeman. Gizartea aldatzeko, iraultza egiteko etsipena nabaritzen da. Tonu ezkorra da nagusi, optimismorik gabekoa. Hona hemen bi esaldi esanguratsu: "Ez dakit poesiak ezertarako balio duen", "Bizitzea bidaiatzea da, baina tren hori infernurantza doa".

Poetak dioen bezala, betiko kondenatua dago preso, eta hainbat poetarekin, hala nola Maiakovskirekin edo Villonekin, partekatzen du ezaugarri hori.

LITERATURA ETA IRAULTZA

*Angel Martinez komisarioak bere errebolberraren
kainoia
detenitu biluziaren uzkira sartu eta mirila zikindua,
odoldua, patetikoa ateratzen duenean
zer axola zaio mutil torturatuari poeta
um fingidor den?*
*G.K. Chestertonek La Salve bisitatu ote du
inoiz?*
*Intxaurrondoko kalabozoetan nork ezagutzen du
Hermann Broch?*
*Zelan adieraziko du gero mutil torturatuak
epailearen aurrera suntsiturik iristean
objective correlative kontzeptuaren esanahi
zehatza?*
*Zer da Molly Bloomentzat Carabanchelgo egunsenti
jostorratzez betea?*
*Nor da Michel Foucault zigor zeldetan hamar hilabetez
higatzen denarentzat?*
*Bost minutuko bisita bat? Enkontru lirikoa?
Euskal presoek*
*Jean Duvoisin en Biblia estudiatu behar dute
beren gutun debekatuetan
hatxeak eta komak leku egokian jartzeko?*
*Zein da literaturarentzat
errebeldiaren, iraultzaren, abenturaren
balio etiko ahorteza?*
*Zer izkiriartzen da Voprosi Literaturi edo Tel Quel
aldizkariaren ertzean*
*Zer axola zaio konpromezua
polizien tiro artetik —erreboluzioaren bandera lez
ezkutarik gabe— ihes doan mutilari?*

TREN LUZE BAT

*Beti dago egunsentian tren luze bat
estaziotik abiatzen.
Andere batek begiratzen du leihotik,
inori ere ezin dio adio esan.
Beti dago bihotz zatitu bat
erdiz trenean doana
eta erdiz estazioan geratzen dena.
Euria erortzen da, kristala bustiaz,
bagoiak bustiaz, trenbideak bustiaz.
Trena beti infernurantza doa.*

2. ariketa:

1. Zein da poemaren esanahia?
2. Nolako sentimenduak nagusitzen dira?
3. Zeren metafora da "tren luze bat" ?

AZKENENGO TRENA

*Ez duzu alde egiten utzi behar
udazken arratsalde doratuak
azkenak agian
eskaintzen dizun tren nora gabea
azkena agian
ez duzu alde egiten utzi behar
azkeneko trena.*

3. ariketa:

Adierazi poema honek sortarazten dizkizun pentsamenduak, ideiak edo sentimenduak.

3.1.2. BIGARREN ALDIA

GARTZELAKO POEMAK (1992) liburuak bigarren etapa markatzen du Sarrionandiaren olerkigintzan; aldi honetan, garraztasuna eta gordintasuna dira nagusi. Kartzelako eta erbesteko egoera islatzen du. Bertako poemak esperientzia pertsonalari lotuagoak daude, eta konpromiso politikoa nabarmentzen da. Hala ere, ez zaie lirikotasunik eta literaturtasunik falta. Badirudi, espetxea eta zapalketa ezagutu ondoren, bizitza eta poesia ez direla lehenengo berberak izango. Poeta garratzago bihurtu da.

Iñakik Aldekoak[3] dioenez: "*Izuen gordelekuetan barrena* liburuan ziutatea baldin bazen poetak bere gainean zeraman zama, oraingo honetan kartzela izango da. Bere preso egoeratik ez du jada idazten –lehenago egin zezakeen legez– "marionetak marionetentzat" bezala, "pertsonak pertsonentzat" bezala baizik. Ez du idazten itsaso zabalean zehar nabigatzaile oharkabeak egingo lukeen eran, sufrimenduak ernarazten duen kontzientzia argitik baizik; alegia, poetak bere gorputzean –marionetak ez du sufritzen, pertsonak bai– "munduaren epilogo" izenez idatzi duen torturaren kontzientziatik. Horregatik bueltatzen dio, orain bai, arrazoia T.S. Eliot-i, apirila hilik

krudelena zela zioen hartan. Presoak badaki kartzela apiril luze bat dela, itxarote sasoi luze bat”.

Poema liburu honetan, “horma” da metafora nagusia. Bidaiak mugimendua dakar berarekin, hormak gelditasuna; bidaiak aire berria, hormak berdintasuna. Geldirik egoteak baditu, baina, bere abantailak ere: geldi eta beti berdin dagoenak barrenera begiratzeko aukera du. Kartzela autobiografiarekin biltzen da hemen. Gorputza espetxeratzen duen horma horrek ezin du irudimena atxiki. Hala ere, poesia errealistatzat jotzen da *Gartzelako poemak* obrako estetika. Kartzelako esperientziatik jaiotako poemak biltzen dira bertan, eta, hartara, poetak erabili duen ahotsa ez da lehengo liburuko poemetakoa. Ahots desengainatu eta gogorragoa da; poemak hunkigarriak, latzak, zailak irensten, grabeak, garratzak eta gordinak gertatzen dira, J. M. Iturraldek adierazi bezala; eta G. Markuletaren esanetan, poemarioa “baltza, latza eta garratza” da.

Estiloaren aldetik ere, badago aurrekoaren aldean bereizketa nabaria. Espetxean, haren hitzetan “itsaso mortu horretan” ez dago non porturatu, “Morlango portuan ez dago sekula itsasontzirik”; beraz, itsaso hertsu horretan ez dago lekuri ironiarentzat, ezta metapoesiarentzat ere. Horregatik, poesiaren ahotsa haren eta lagunen izenean betetako lekukotza da, ahanzturaren oroimen eskasiaren kontra jasotako testigantza, alegia.

ITSASO DEBEKATUAK

“I love to sail

forbidden seas”

Herman Melville

*Nondik datoz marinela?
Nora doa untzia? Zergatik?
Nortzuk dira marinela?
Eta zer da untzia?*

PRESO EGON DENAREN GOGOA

*Preso egon denaren gogoa
gartzelara itzultzen da beti.
Kalean juje, fiskal eta
abokatuekin gurutzatzen da,*

*eta poliziek, identifikatu ez arren,
beste inori baino gehiago
begiratzen diote, bere pausua
sosegatua ez delako
edo sosegatuegia delako.
Bere bihotz barruan
betirako kondenatu bat dago.*

http://www.badok.info/audio.php?id_artista=106

4. ariketa:

1. Zer adierazten du, zure ustez, poetak?
2. Zer dela eta "betiko kondenatu bat"?
3. Zer sentimendu nagusitzen da?
4. Esperientzia pertsonalak ba al du zerikusirik?

II. galdera

*Presoa zelda bazterrean
bakarrik mintzatzen bezala
baina ez
armiarma bati galdetzen dio
noiz arte?
armiarma, berehala,
zintzilikatu eta haria luzatzen jaisten da
eta badirudi hari luze hori dela
armiarmaren erantzuna.*

Presoen amak

*Oroitzen zaitudanean, ama,
Sukaldean egoten zara
Mahaia bostentzat atondu
Aulkian eseri eta leihotik
Kristala lausotzen duen lurrina
Ezabatu gabe neguari begira
Eta ni —badakit—
Zure begien hondoan nagoela.
Patioan solasean eta lagun batek:
— Itolarria sentitzen diat...
Zer den amaren begian egotea!*

Itzulera

*Itsasontziak lehorrera
itzultzen dira beti.*

5. ariketa:

1. Zein da poemaren mezua?
2. Egizu poematxo bat, itsasoaren metafora erabiliz.

3.1.3. HIRUGARREN ALDIA

HNUY ILLA NYHA MAJAH YAHOO POEMA BILDUMA (1985-95).

Adituen ustez, oraingo aldi honetan mundutar anonimo (iheslari) bilakatu izanak sortzen dion *hemen nahi eta han beharraren* arteko aro dialektikoa antzeman daiteke. Jose Luis Otamendik "liburua tratatu moral bat" dela esaten du, eta Aitzpea Azkorbebeitiaren ustez, gaiak eta sentimenduak ikuspuntu humanistatik hartuak daude.

Izena, zenbait ikerlarik adierazi dutenez, Aitzpea Azkorbebeitiak kasu[4], Jonathan Swift idazlearen *Gulliverren bidaiak* liburutik dator; bukaerako esaldia da nobelan, eta "Zaindu zeure burua, gizontxo" esan nahi du. Horrelakoetan ohikoa denez, zenbait klabe nagusi ematen zaizkigu izenburuan. Subjektu poetikoaren berri ematen da; norberaren burua zaindu beharra dago historiaren, sistemaren eta kapitalismoaren aurrean. Eta subjektu poetiko hori "gizontxo" bat da, bakartasuna adieraziko duena, ezintasuna, deserria; Iurretako poetak ondo baitaki "munduan bizitzea / ederra bezain izugarria dela" (Hnuy, 158. or.), eta, beraz, beharrezkoa dela geure burua zaintzea "ondo sorue" den mundu honetan, "espektakuluaren eta zaborraren zibilizazio" honetan barrena ibiltzeko (Hnuy, 46. eta 139. or.). Liburua, azken batean, deserriari buruzkoa da, deserria maila sinboliko eta metafisikoan, bakartasunaren mugaren sinbolo gisa emanik.

Joseba Sarrionandiak, liburu honetan, bere poesiaren ardatz nagusi izan diren joerak bildu eta sakondu ditu, hau da, ikuspegi errealista, bere bizitzaren esperientziarekin lotutakoa: kartzela eta deserria, batez ere, eta horren berri tonu pertsonal bezain barnekoian eman du. Liburua zazpi ataletan banatua dago: "Tren luze eta bustiak" izenekoan, erbestearen gaia da nagusi; "Gure arbasoak" deiturikoan, historia eta erreferente literarioen gaineko hausnarketak agertzen zaizkigu; "Marinel korapiloak" saileko poemak itsasoaren, marinelen eta bidaiaren gaiari buruzkoak dira; "Merkatu beltza" gizarteaz eta poesiak gizartean izan dezakeen lekuaz ari da; "Hutsik geratu ez ziren zeldak" sailean, kartzelaren gaia agertzen da; azkenik, "Gure

hilak" saileko poemetan, heriotzaren inguruko gogoetak irakur ditzakegu. Eta zazpi horien artean badira hiru ipuin banatzaile eta batutzaile: T. S. Eliot gogora ekartzen duen "Denbora presentea eta denbora pasatua", "Eta denbora futuroa" eta "Afrikak eta Europak" ipuin laburra. Poesiaren izaerari buruzko poema asko daude liburuan, baina esanguratsuenetakoa bat aipatzearren, hona hemen pasarte hau:

*Poesiak ez du deus aldatzen,
ez inor fanatiko bihurtzen
baina ekin dezagun harik eta
gure aberri eta sasoiaren tankerako hitzak aurkitu arte,
munduarekin, mendearekin, jendearekin nahasteko modukoak.
Poesia egitea ez da gauza itzela,
lengoaia berregitearen joko hutsala,
gogoeta harilkatzeko manera emendatzea,
obra inperfektoa gehienik,
baina eman dezagun
limonada prestatzea bezain
ekintza humano eta duina dela.*

*Kanta diezaiogun sehaska kanta bat
gure aberriaren sehaska hutsari.*

Aipatutako liburuan (Azkorbebeita, 1988) esaten denez, Sarrionandiaren poesian deserrotzearen ondorioz bidaia agertzen den bezala, bidaiaren ondorioz deserrotze-sentimendua areagotuko da. Zergatik? Beste zerbait hobearen bila abiatuta ere, ez delako amestutakoa izango, eta, bilatzen duguna lortzen saiatuta ere, "gure eginak alferrik galduko" direlako nahinon (*Hnuy*, 79. or.). Deserrotzea, hortaz, erabatekoa da eta nahinongoa, eta, horregatik, bidaia ere bukaerarik gabea da, etengabea, deserrotzeak berriro abiatzea dakarrelako. Bizitzea, azken finean, moilarik moila ibiltzea da; "bizitzea moilara heldu / eta adio egitea da" dio poetak.

Izuen gordelekuetan barrena liburuan ere badago bidaiaren metafora, deserrotze kulturala adierazteko. Deserrotze horrek bidaia literarioa du oinarri, hau da, literatura eta kultura-erro gabezia; horregatik, tradizioa bilatu edota asmatu beharra dauka poetak. *Hnuy illa nyha majah yahoo* liburuan, ordea, urrats bat haratago eman du, beste maila bateko deserrotzeaz hitz egin beharrean gaude, maila sozio-politikoan kokatutako deserrotzeaz, alegia. Oraingoan, munduarekiko, gizartearekiko nahiz herrialde batetiko loturan ez ezik, norberarekikoan ere ulertu beharra dago. Horren adibide ugari ditugu: "ni ez naiz hemengoa" dioenean, gure poeta ez da gizatasuna galdutako gizarte honetakoa; arrotz sentitzen da mundu zentzugabe honetan, kaleetan dabilen txakurra bezala ("Zakurra" poema). Eta

munduan bezala, bertan bizi den gizateriarekin ere arrotz sentitzen da Sarrionandia, ("Merkatu beltza" sailaren sarrera-aipuan esaten zaigunez, "jendea kontrako zentzuan datorrela kaustitzen dut gehienetan"). Jendearekin konektatzeko eta komunikatzeko ezintasunak deserrotze-sentimendua eragiten du berarengan; hartara, inkomunikazioaren bizipenak indar handia dauka poesian.

Sarrionandiarengan bezala, beste hainbat idazlerengan ere agertzen da sentimendu hori (Baudelaire, Pessoa, Onetti, Benedetti, Galeano, Kafka, T. S. Eliot, eta hamaika idazle gehiagorengan). Begirada hurbilago jarritz, gogoratzekoa da, adibidez, *Etiopiaren* egilea ere, Atxaga, arrotz sentitzen dela, "apatrida hori bezain hautsia eta hutsala eta edur lehena".

Bestalde eta aldi berean, deserrotze-sentimenduaren ondorioz, beste portu hobe baten bila bidaiatzeko gogoia ere agertuko da, nora goazen edota helduko ote garen jakin ez arren. Beraz, deserrotzeak bidaia izango du emaitza, bilaketa: gugandik kanpoko bilaketari (hots, "portu", "hiri", lurralde, gizarte, mundu hobe baten bila "bidaiatze" horri) geure baitako bidaia ere gehitu behar zaio. Bidaia, orduan, gure baitatik hasten da, gure baitaren araketatik. Bizitzarekin eta unibertsoarekin lotzen gaituzten hariak hauskorrak direnez gero, gure bizitzaren hutsaltasunaren eta ezdeustasunaren kontzientziak deserrotze-sentimendua areagotuko du, hau da, errorik gabe unibertsoan galdutako ezereza garelako sentimendua.

Gainera, heriotzaren ziurtasunak dakarkigun ezerezaren kontzientziari bakardadearena ere gehitu behar zaio. Ahaztezina zaigu, beraz, "ez garela ezer, ilunpetan higitzen diren haur izuak besterik", eta ahantzezina, orobat, Gulliverren irudia agertzen duen "Iluntasuna nehurtzen" poema. Irudi horren bitartez, izenburuak zentzua hartzen du berriro: gizarte deshumanizatu honetan, osasunik gabeko mundu ero honetan barrena ibiltzea, bizitzea zaila eta latza bada ere, gure ezdeustasunaren, bakardadearen eta heriotzaren aurreko babes-gabeziaren kontzientzia osoarekin bizi behar dugulako. Horregatik eta horretarako, beharrezko zaigu geure burua zaintzea; horixe bera da zaldien hizkuntzan Gulliverri esaten diotena: "Hnuy illa nyha majah yahoo", hots, "Zaindu ezazu zeure burua, lagun".

Aitzpea Azkorbebeitiak, bere saio kritiko luzean, honela laburbiltzen du literaturaren zereginari buruzko aipamena: "Sarrionandiarentzat ezinbestekoa da gizartea nahiz gure herriaren egoera aldatzeko ezinezkotasunaz kontziente izatea, eta kontziente izanda aurrera egitea, garrantzia daukana saiatzea baita, saiatuz bizitzea: "Paradisurik ez da, baina saioaren sasoia da".

MUNDUA ZABALA ETA ARROTZA DA

*Ez dizuet esango zelan iritsi nintzen
hiritik lau edo bost ordutara
mendian urrun egurrez eta hostoz eraikitako
eskola hartaraino.
Iritsi nintzen eta, albotik pasatu behar nuen arren,
mendien bestaldera bainindoan,
Maisuaren ahotsa entzundakoan jakin minez
gelditu nintzen:
«Mundua zabala eta arrotza da» zioen
liburu bat eskuetan zabalik.
Ate erdi irekitik ikusi nuen, Maisua, umeen
artean zutik diktatzen:
«Mundua zabala eta arrotza da» errepikatu zuen
eta umeak buruak makurtu eta
lapitzak paperaren kontra sakatzuz hasi ziren*

*idazten: «M u n d u a...»
Maisuak silabak larriduraz iraun erazi zituen
gehitzeko «za-ba-la e-ta...»
gero ahotsa ezpainetan zintzilik eutsi ondoren
bukatzeko «...arrotza da».
Umeen begi beltzak begiratu ondoren, kaligrafiaren
garrantzia azpimarratuz bezala
errepikatu zuen «Mun-du-a za-ba-la...» eta
hizkiak luzeagotuz «e-ta a-rro-tza da».
Orduan pausa laburra egin zuen eta gero errime
berriro: «Mundua zabala eta...»
eta umeteriak, begiak paper lohietatik altxatuz,
oihuka esan zuen: «...arrotza da!».*

Hnuy, "Tren luze eta bustiak" sailekoa.

Hurrengo hau "Gure arbasoak" sailekoa da:

Poesiaren gauza galdua

*Ene aberri eta sasoiko poetok
mundua ahoskatzeko maneran
partaide garelarik,
zuekin batera aurkitu nahi nuke
gure hitzen zentzu eder galdua.
Nork daki okerreko eskaileratik igo ez garen honaino.*

*Gure lur okupatuari, gure arbaso zakarrei,
gure hizkuntza baztertuari erreparatzen badiogu
badirudi ez dugula ez aberri, ez sasoi, ez mintzaira,
ez kantarik, geuk asmatuko duguna baizik.*

*Auskalo norena den errua,
agian geure da, eta urrutirago joan gabe
geure buruaren aurka ekin beharko dugu.
gure bakardadea baino zabalagoak gara
eta leiho ttipirik ez,
zabal dezagun leihoa horma baino zabalago:
Kanta dezagun sehaska kanta bat!
Ganbarako botila hutsak zaborretara*

*Eta lore eta ilargi eta ispilu eta begi
eta amets eta izar eta bihotz dekoratiboak
eta amour eta tujours-lako errimak zaborretara.
Astin dezagun hautsa doministikunera arte.
Altxa dezagun maldarik malda
gure gogoaren bandera baldartua.
Kanta diezaigun sehaska kanta bat gure aberriari.*

*Poesiak ez du deus aldatzen,
ez inor fanatiko bihurtzen
baina ekin dezagun harik eta
gure aberri eta sasoiaren tankerako hitzak aurkitu arte,
munduarekin, mendearekin, jendearekin nahasteko modukoak.
Poesia egitea ez da gauza itzela,
lengoaia berregitearen joko hutsala,
gogoeta harilkatzeko manera emendatzea,
obra inperfektoa gehienik,
baina eman dezagun
limonada prestatzea bezain
ekintza humano eta duina dela.*

*Kanta diezaigun sehaska kanta bat
gure aberriaren sehaska hutsari.*

6. ariketa

1. Zer da poesia? Beharrezko al ditugu hitz eta errima guztiak? Zein da poetaren apustua?
2. Azaldu ondoko irudia: "zabal dezagun leihoa horma baino zabalago".
3. Hainbat irudi atzeman daiteke poema honetan, esaterako, "astin dezagun hautsa". Aipatu beste bizpahiru irudi esanguratsu.
4. Zer dela eta sehaska-kanta bat gure aberriari? Zeren metafora da?

Biluzteko orduan

*Ohe bazterrean besarkatu ginenean
maitasun poema bat eskatu zidan.
Izterrak ene giltzurriten inguruan
estutu zituenean
maitasun poema bat eskatu zidan
berriro.
Zer egin? Poeta ofizioa ez da erreza,
Rainer Maria Rilkek
poesia odolezko izerdia dela
esaten zuen.
Zertarako ekarri izua eta ikara
izara artera...*

*Larruak ematen duenarekin aski da,
eta dena dela
larrua jotzeko ez da derrigorrez giro hain
poetikorik behar.*

Biluzten bagara errazagoa da.

Ondo pasa asteburua eta muxu bat

(Hnuy, "Monogamo inperfektua" sailekoa)

7. ariketa

1. Zer dio poesiari buruz?
2. Zer dakizu Rainer Maria Rilkez?
3. Zer dela-eta "izua eta ikara izara artera"?
4. Poema sortzeko ikara gaintitu beharra ote dago?
5. Izan zaitez ausarta, eta egiozu poema bat biluzteko orduari.

"Merkatu beltza" saileko Zaramalogia Sarrionandiaren beraren ahotsaz entzuteko:

www.susa-literatura.com/emailuak/ondasuna/

ZARAMALOGIA

«Kosmos delakoa edozelan pilaturiko zarama besterik ez da». Heraklito Iluna

Zazpi zaborrontzi kale bazterrean
(zazpiak lerroz lerro)
taparik gabe, ahoa euliei zabal zabalik,
tripazain.
Auzo honetako andere gizonak ontziak
arretaz betetzen dituzte.

Hara hor gure soziologia material
 eta sakonaren hondarrak,
 boltsa astunetan edonondik eta
 edonoiz datozen hondakin
 enigmatikoak. Begira egiezu gorputz hutsoi,
 zelan asebetetzen diren,
 eta egin hiritarren behar intimoen
 historia.
 Zarama ontziotan denetik, bizimodua
 eta bere soberakinak,
 antropologia artxiboan baino humanitateari
 buruzko datu gehiago.
 Hara hor botila hutsak, plastikoak
 eta txatarrak,
 saxofoi herdoildua, botika kadukatuak,
 kaiola txori hilak,
 zaramapean metano gas lehergarri bihurtuko
 diren sein-painal desetxableak.
 Zazpi zaborrontzi kale bazterrean
 (zazpiak lerroz lerro).
 Igarri metalezko ahoen mezua: ugarian
 eta naroan akabatuko gara,
 dietak egin beharko ditugu gain bizitzeko
 alde honetakoek,
 bestaldekoak gosez egarriz eta euliz
 hiltzen diren bitartean.
 Hara hor katu beltza zarama gainean
 eta heldu den agurea,
 agure gaixo hori bidaiaren bat egiteko
 oinetakoen xerka agian.
 Zazpi zaborrontzi irense kale bazterrean
 (zazpiak lerroz lerro)
 etorkizuneko estetika, joankizuneko etika
 zibilizazioaren poetika formulatzen,
 bota eta tirante fosforezenteekin datozen
 langile beilegien zain,
 astiro eta astun materia birrinduz heldu den
 kamioiaren zain.

Kiromantzidxa

Ekarrixu hoan eskumako eskue,
 Amen iñok eztotzu ainke ingo ta.
 Onantzatxuau baña,
 Ikumille eess,
 Sabaldu eskue
 Ta luzetu atzamarrok
 Es billurtu.

Beittu, ingu sure bisimorue,
 Aber:
 Ensegida esangotzut.

Dana lanbrotute ikustotpañã
Estakipa estakipa...
Au etxate bape gustetan eee...
Or tiro artien saus
Itzelezko miñekin ikusten saittut
Ortxe, urrin orretan,
Gusteu bapez
Ta bestior, kartzelako soruen esaus ba?!
Setan sabix ba gisajuori?

Maittasunek, danak urriñek,
Soridxonak, danak laburrek
Lagunek asko ta asko ildde jooosaus
Beti burusbera saus ta
Ser ein eteosu orrenbeste sufrikaridxo ereiteko?
Ta errematerako, datosen egunepe,
Geruau ta txarrauek.
Igarri esin dduana da, segaitik.

Apur bat alperra baña
Senzudune, sintzue,
Jentiek maitte saittu
Baña larrei sufridu bikosu.
Arrasia sakone bat dekosu suk nunun
Baña esineike igarri seiñ ddan.
Gobernue
Bere indder gustidxeekin dator seure kontra
Polisidxak, juesak, bankeruek, danak seure atzetik
Kontuek atara!
Sein ete da ba, sure erru larridxori?

Orraikiño, nungotarra sara baña...
Ara ba,... karo!... Esara ba euskaldune!
Euskaldun jaidxo eskero
Esta arritzekue gero, suerte eskasa bisitzie

Euskaldune saaaratarra ixetie,
Indidxue ixetie
Ero baltza ixetielakue da.
Eneuke egon gure seure kolkuen.
Esattes gelditu egundo losorruek,
Deskantzu barik ibili bikosu
Baña...esaiesala egundo arrapau ustebakuen
Se, edonun eta edonos
Akabauko saittue,
Ondo aittuostesu?

Eta horrenbestegas, kitto nire esatekuek,
Berreun pesta baño es,
Ondo merkie eee?
Kalean dabidxen presidxuekaz konparetan bosu,
Semapida ba, bizitzeko?!

Dana dala,
Nik soritxarrari deskuentue eittotzet,
Ta ain melankoliko gerau esaittesen
Kafe bat atarakotzut
Keie daridxola,
Kanpoko lanbroartera urtedxeran
Urdaille sikiera epela eruen deixun
Eta kontus ibli ortisier se
Ixen be,
Ondo sorue da mundu au bisi gariena!

8. ariketa

1. Laburtu poemak kontatzen duena bost lerrotan.
2. Idatzi euskara batuan lehenengo bi ahapaldiak.

ILUNTASUNA NEHURTZEN

Argia amatatzen denean, ustekabean,
ez dugu zer atxeki,
ez nora jo, ez zer egin, argi
esateko: ilunbetan gaude.
Egoera tristea da, baina zeozelan
onuragarria.
Onuragarria da, normalean inguruarekiko
dugun konfidantza eten eta
gure berezko bakardade eta babes gabezia
egiaztatzen duelako.
Argia amatatzen denean, ustekabean esan dut,
zeren eta hori ustekabean gertatzen da beti,
akzidente bat bezala, gure ahalmena
zentral hidroelektrikoen mendean dagoela,
gure borondatea posterik poste heltzen diren
kableetatik zintzilik,
gure ziurtasuna bonbilaren metalezko hari mehea
bezain larria dela ohartzen gara.
Eta bitartean ez garela ezer, ilunbetan
higatzen diren haur izuak besterik.
Argia amatatzen bada, zaila da lehenago hasitako
solasa jarraitzea,
Iluna arren dena berdina da, edo berdintsua
izan beharko luke,
baina argia amatatu denean isildu zara
edo gaia aldatu duzu,
eta armairutik ateratako kriseilu zaharrak
argia eman arte
begi bistakoa ezezaguna egin zaizu eta

haztamuka bizi izan zara...
Eskerrak ilunbeak ditugula, argirik
oraindik ez badugu.
Ilunbetan bizitzen ikasi arte ez dugu
argi bizitzen jakingo.

(Hnuy, "Merkatu beltza" sailekoa)

<http://www.susa-literatura.com/audioa/ondasun2.mp3>

9. ariketa

1. Zer gertatzen da argia amatatzen denean?
2. Zein irudi dakarkigu argia itzaltzeak?
3. Iluntasunak eragozpenak ekarri arren, beharrezko al dugu?
4. Ba al dago konparaketarik eta paradoxarik? Non?
5. Sortu konparaketa bat, eta baita paradoxa bat ere.
6. Azaldu bi lerrotan zein den mezua eta non azaltzen den argi eta garbi.
7. Nola definituko zenuke poemaren tonua?

Ken Zazpik badu kanta zoragarri bat; "*Gaueko argiak*" izena du.

<http://www.youtube.com/watch?v=gHcllrUYqs8>

3.2. EZAUGARRI OROKORRAK

LABURBILDUZ

1. Sarrionandiaren poesian, bi elementu nabarmentzen dira: bizi izandakoari zuzendutako begirada argia eta hizkuntza jantzia. Bizipenek eragin handia dute haren literaturan.
2. Liburu, poema eta kapituluaren izenburuek, gehienetan, istorioaren muina era sintetizatuan ematen digute; esaterako, "Bake beltza" poeman (Hnuy, 212. or.), beltza izenondoa ez da berez bakeari dagokiona, ironia baizik.

3. Testuartekotasunerako joera nabaria du. Bere testuetan, *kanpoko* nahiz *hemengo* tradizioaren uztarketa bilatzen du: Eliot, Kavafis, J. Swift eta beste hainbat idazleren ondoan, Mirande, Aresti, Etxepare... Adibidez, "Olerkaria" izenekoan (*Hnuy*, 102. or), Lauaxeta du gogoan, edo "Zaramalogia" delakoan (*Hnuy*, 154. or.), Heraklitoren zita batetik abiatzen da.

4. Komunikazio inplizitua maiz agertzen da, esandakoan baino gehiago esan gabe geratutakoan baitago mezua. Hartara, testuek, bi maila komunikatiborekin jolastearen ondorioz, bi irakurketa egiteko parada ematen digute, eta irakurleak erabakiko du zeinekin geratu, hots, esplizituarekin, agerikoarekin, edo inplizituarekin, iradoki dezakeenarekin.

5. Toki zein egoeren deskripzio estilizatua egiten du: pertsona konkretu batzuen egoera deskribatu ordeztu, giza kondizioaren azalpena bilatzen du. Egoeren deskribapenetik egoeren unibertsalizaziora doa.

6. Hitzari buruzko hausnarketa bihurtzen da askotan haren olerkia, metapoetika izateraino.

Finean hitza
hutsik geratzen den zelda
besterik ez da.

7. Metaforen batasuna da beste ezaugarri bat: *bidaia*, *marinel zaharra*, *infernura doan trena*... Hirurak, azkenean gauza bakarra dena adierazteko: bizitza erbestea da. Bat-batean heriotzarantz goazela jakitea da bizitzako azken ikasgaia.

Ezen eta gizakumea, pospoloa lez, baliozko
ezer gutxi gabe, akabatzen duk,
bere kantuak soilik dituk etxe aldera
dortoka zaharren antzera itzultzen.

8. Umorea, ironia, paradoxa ohikoak ditu bere lanetan. Sarrionandiak testuaren aurrean geratu eta gogoeta egitera bultzatu edo behartzen gaitu, bere ahotsa jarri ordeztu geure ahotsa jarrarazten digu eta; horretarako, umorea, ironia, paradoxa maisuki darabiltza. Kritika eta autokritikaren beharra, jarrera manikeistak urruntzea, besteen ikuspegia ezagutzea, jarrera pasiboak alboratzea du helburu; hau da, gure pentsamendu kritikoa praktikan jar dezagun nahi du.

9. Azken batean, *Olerkariak* 1930 hartan egin nahi izan zuten berbera da Sarrionandiak ere lortu nahi duena, berak aitortzen

duen bezala: "Poetaren eginbidea, Stéphane Mallarmék esan zuenez, tribuaren hitzei zentzu garbiago bat ematea da. Zentzu garbiagoa, osoagoa, irekiagoa, hitzen bidez kontzientziaren eta munduaren artean erlazio aproposagoak sortzeko. Eta hitzen bidez, gauzen eta egoeren ezagupen argiago eta berriagoak lortzeko".

Zer da literatura?
"Literatura bizitzeko modua besterik ez da".
(Joseba Sarrionandia)

-
- [1] IZAGIRRE, Koldo: *XX. Mendeko poesia kaierak*. Joseba Sarrionandia, Susa, 2002.
[2] OTAEGI, Lourdes: *Joseba Sarrionandia. Marinel zaharraren kantua*, Literatur kaierak 2, Bilbo, 2000.
[3] ALDEKOA, Iñaki: *Zirkuluaren hutsmina*, Donostia. 1993
[4] AZKORBEBEITIA, Aitzpea: *Joseba Sarrionandia: irakurketa proposamen bat*, Labayru Ikastegia, Amorebieta-Etxanoko Udala, Bilbo, 1998.